

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, pertsona juridiko guztiek (gure kasuan, ikastetxeak, guraso-elkarteak, kirol-klubak...) modu elektronikoan erlazionatu behar dute administrazio publikoekin. Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, **EGOITZA ELEKTRONIKO**Aren bitartez bideratu behar dira harremanak.

Hori dela eta, jakinarazi nahi dizuegu egoitza horren bidez egin beharko duzuela eskabidea eskola-kiroleko diru-laguntzetarako hurrengo deialdian (apirilean izango da). Ez da diru-laguntzetarako ezein eskabiderik onartuko bide hori erabiltzen ez bada.

Erantsitako taulan, **erakundearen eskabidea egiteko dituzuen aukeren berri** ematen dizuegu:

EGOITZARA SARTZEKO MODUA		ESKABIDEAREN AURKEZLEA	DIRULAGUNTZA ESKABIDEA AURKEZTEN DUEN PERTSONAK/ERAKUNDEAK ORDEZKARITZA EGIAZTATZEKO ERANTSI BEHAR DUEN DOKUMENTAZIOA
ERAKUNDEAREN ORDEZKARIAREN ZIURTAGIRIA	IZENPE	ENTITATEA	BAT ERE EZ
	DIRUAREN ETA ZERGA-ZIGILUAREN FABRIKA NAZIONALA		
	BESTE BATZUK...		
NAN ELEKTRONIKO AKTIBATUA EDO HERRITARREN ZIURTAGIRIA		PRESIDENTEA EDO IDAZKARIA	ELKARTEEN ERREGISTRO OROKORRAREN EDO EUSKO JAURLARITZAKO KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROAREN ZIURTAGIRIA
		EDOZEIN PERTSONA	NOTARIO-AHALORDEA edo EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN ORDEZKARIEN ERREGISTROAREN (EJ) ZIURTAGIRIA